

Baloretzko proposamena bezeroengana iritsi dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu segmentuetaraino nola iristen den deskribatu behar da.

Bezeroekiko harremanei dagokionez, online emango eta eskainiko diren klaseak eta apunteak direnez, ez dute akademi edo lokal batera joango beharrik, beraz, online motako kanala erabiliko dugu, kanal propio eta zuzenak izango dira alajaina.

Bezeroekiko komunikaziorik egokiena mantentzen saiatuko gara, elkarrizketak presentzialki emango ez diren arren. Gaur egungo teknologia aurreratuak abantailak eman diezazkioke gure enpresari.

Bestalde, aplikazio hau edonork eskura dezan, hainbat aukera emango ditugu; alde batetik, android ereduko mugikorra duenarentzat, Play Store plataforman egongo da eskuragarri. iOS ereduko mugikorra dutenentzat berriz, App Store plataforman. Hau nahikoa ez balitz, gure web orrialdeak ere aukera hau eskainiko du; hau da, gure enpresari buruzko informazioa txertatzeaz gain, eskuragarri jarriko dugu aplikazio hau web orrialdetik bertatik deskargatzeko aukera.

App Store eta Play store plataformei dagokienez, plataforma hauetan zintzilikatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratuko ditugu. Aplikazioaren diseinua egin ondoren, eta baimen guztiak eskuratu ondoren, aplikazio hau zintzilikatzeari ekingo diogu.